

2002-08-20
kioskoa

Ekaitz Agirre

Europa
«solidarioa» eta
Johanesburgo

Azken egunotan Europako hainbat herrialdetan uholdeek eragin dituzten kalteak ikusita, naturak eragindako hondamendiei aurre egiteko fondoaren sorreraren berri eman zuen herenegun Europako Batzordeko presidente Romano Prodik. «Ezbeharraren aurrean Europa solidarioa» zioen **El Mundo**-k atzoko alean. **El Diario Vasco** egunkariak ere ideia bera azpimarratu zuen eta nabarmendu «elkartasuna ez dela soilik Europar Batasuneko herrialdekikoa, baita bertan sartzeko hautagai diren herrialdeekikoa ere».

Orain hamar urte Rio de Janeiron (Brasil) egin bezala, hurrengo astelehenetik aurrera Lurraren Gailurra Johanesburgon (Hego Afrika) hasiko dela gogorarazi zuen **Gara** egunkariak. Azken hamar urteetako balantze «ezkorrari» buelta eman zaiola eta Johanesburgon «garapen sustengarriari» proposamen berriak aurkeztu behar zaizkiola nabarmendu zuen egunkari horrek.

El Mundo egunkariak ere laguntzetatik haratago jo nahi izan zuen. Europak hondamendi horietatik «beste irakurketa batzuk egin behar» dituela zioen egunkari horrek eta Alemaniako ministro batek AEBi Kiotoko Protokoloa ez sinatzeagatik egindako kritikak gogorarazi zituen eta «aldaketa klimati-koak eragin ditzakeen kalteak ezin direla gutxietsi» gaineratu.

Diru laguntzen zenbatekoaz haratago, «ingurugiroaren inguruan hausnartu beharra eta askok uste baino ahulagoa den Europar Batasunaren barne kohesioa indartzearen garrantzia» azpimarratu zituen **El Pais** egunkariak.

Euskal duna on 3.633. zenbakia
Egunkaria

Oherezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal


Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batxorde Parekidea: 72664 E Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

udamina

Pako Aristi

Zer da
albistea?

Lehengoan irakurri nuen: «Britainiar bakoitzak 155 sandwich jaten ditu urtean». Edota: «Gwyneth Paltrow ez du inork afaltzera gonbidatzen Ingalaterran». Eta hurrena: «Mel Gibsonek isun bat ordaindu du Australian».

Egunkarietako orriak, gero eta gehiago, komikien irudia hartzen ari dira aspaldion: albiste txiki, argazki, marrazki, ordenagailuko grafiko, publizitate izpi karratu eta abarrez beterik daude. Eta, tamalez, haien mamia ere komikien antzekoa goa da egunetik egunera.

Segundo gutxitan irakur ditzagun aurkezten dizkigute albisteak labur, erabat testuingururik gabe, ez aurreko eta ez atzeko arrazoi edota ondorioen berri eman gabe. Albisteok aukeratzeko irizpideak hiru dira funtsean: odoltsuak izatea, ikusgarriak, edota grazidunak. Gure helburua aldarazi dute: lehen, egunkaria irakurtzen genuen munduan zer ari zen gertatzen jakiteko; orain, munduari ikusmiratxo bat emateko

irakurtzen dugu. Iruditzen zaigu lauki baten barruan dato- rren hitz-sorta oro albiste dela, baina gezurra da: gero eta gehiago, garrantzitsuak diren gauzak ahantz ditzagun sortu- tako komikiak baino ez dira albisteak.

Edo garrantzitsuak ez diren gauzak gogorarazteko. Aste- buruan, egunkariak utzi eta Teleberri ikusten ari nintzen. Gai handiak ari zen agertzen esataria: Europako uholdeak, Bata- sunaren ilegalizazioa... Bat-batean, esan zuen: «*Un cajero au- tomático ha sido atacado en Donostia*». Piska bat beztutako ku- txazainaren irudi triste bat agertu zen, kalearen izena esaten zuen bitartean. 10 segundo iraun zuen. Berririo Ekialdeko uholdeetara pasa zen.

Harrituta geratu nintzen. Albisteak ez zeukan ikusgarritasun- nik, ez odolik, ezta diru-galera handirik ere. Aurtengo udan kale-borroka ia desagertu egin da. Albistea ez zen bere ber- pizkundea iragartzeko modukoa. Zein zen, orduan, bere hel- burua? Zeren albisteak ez dira arbolatik eroritzen; norbaitek erabakitzen du hori sartzeta eta zenbat denboran iraunaraz- tea pantailan.

Bere funtzioa mezu subliminal bilakatzea zen, dudarik gabe, esanez: «Begira, hemen ere zoritxar handiak dauzka- gu». Edo: «Begira, Batasuna ilegalizatuta ekintza hauek amaituko dira».

Aspaldi esan zuen Chuang Tzuk: «Ezagutza handiak dena bateginik dakuski. Ezagutza txikia mila zatitxotan banatzen da». Borroka egin dezagun gauzak zati-txikitze- ko joera me- diatikoaren aurrean.

hizpideak

Eduardo Txillida, beti
egiten ez zekiena egiten
saiatu zen gizona

Euskal kulturaren munduak egundo eman duen sortzaile handienetako bat hil zen atzo, Eduardo Txillida. Mundu osoan ospe handia bildua, XX. mendeko arte garaikidea- ren historiak emandako artisten arteko garrantzitsuene- tako bat izan da, dudarik gabe, Txillida. Jorge Oteizarekin batera, euskal artista belaunaldi berrien aitzindaritzat jo- tzen da Donostian 1924ko urtarrilaren 10ean jaio eta atzo hiri berean hildako artista.

Euskal Herriaren mugak aise gainditu dituen albiste ta- malgarria da, horrenbestez, Txillidaren heriotza. Euskal Herriarekin estu loturik bizi izan zen arren, XX. mendeak

eman duen artista handienetako bat baita atzo munduak galdu zuena.

Unibertsal izateko sustraiak ukatu beharrik ez dagoe- la frogatzen duten adibideen artean argienetako bat da Txillida. Nahiz eta Jorge Oteiza baino bakarzaleago izan sortzeko prozesuari dagozkion urrats guztietan, gizarte- rekin lotura estua izan du beti Txillidak, eta gizarte horren ondo-ondoan egin du lan beti. Horren lekukotasun bizia dira egun noiznahi eta non-nahi ikusten diren ikur batzuk, Txillidak sortuak eta herriak bere eginak.

Burdinaz eginak dira Txillidaren eskulturarik ezagune- nak, baina beste hainbat material ere landu zituen, igel- tsua, zura, alabastroa eta marmola, esaterako. Txillidaren lan grafikoa ere oso ugari eta estimatua da.

Egiten ez zekiena egiten saiatu izan dela beti esan ohi zuen Txillidak, eta etenik gabe galderak egitea izan dela bere zereginaren funtsa. Bilaketa etengabe horren fruitu izan da beti Txillidaren lana.

hemeroteka



Batasunaren ilegalizazioaren aurka bozkatuko dugu. Baina nork bozkatuko du aurka Aznarrek gu lege- kanpo uztea erabakitzen duenean?